

# 2018ko ORDENANTZA FISKALETARAKO ARRASATEKO EH BILDUREN PROPOSAMENA

Ordenantza fiskaletan udal batek bere zerga, tasa eta prezio publikoen irizpide eta arauak jasotzen ditu. Udal eskumena ez da handia alor honetan eta maniobrarako marjina mugatua da. Baina hau horrela izanik ere, bada lanerako tartea eta lanerako gertu gaude.

Arrasateko EH BILDUREN ustez udal zerga eta zerbitzuen tasa edo prezioen bidez justizia soziala bultzatu beharra dago. Progresibitatea ardatz izanik, gehiago duenak gehiago ordaintzea bultzatuz, jendarte orekatuago eta kohesionatuagoa bilatzea baitugu helburu Arrasaten eta Euskal Herrian.

Hainbat ordenantza fiskal aztertu ditugu eta ideiak ekarri ditugu Arrasaterako Iruñea, Hernani eta Oñatitik.

Ordenantza fiskala tresna garrantzitsua dira udalarentzat, baina bertan ez dira jasotzen udalak kobratzen dituen jarduera denak. Kultura, gazteria, berdintasun... sailek antolatzen dituzten ekimen edota ikastaroetan kasuan kasu finkatzen dira prezioak. Arrasateko EH BILDURK hauskalketa bultzatu nahi luke ordenantzan jasotzen diren zerga, tasa eta prezio publikoentzat eta ordenantzatik kanpo diren bestelako tarifentzat egon beharreko hobarien inguruan. Familia ugariak edota familia monoparentalek laguntza behar dute errenta kopuru batetik behera, langabetuek, ikasleek, %33tik gorako diskapazitatea duten pertsonak... helburua kolektibo hauen babesaren areagotzea da, sozializazio eta formazio erraztasunak emanez emanez. Eztabaidak hartu beharko lituzke bere baitan Udal Euskaltegiko tasak edota Amaia Antzokiko zinemen sarreraren prezioak, bidean beste hainbat arlotatik pasaz. Adibidez, Arrasate Musikalen ere udalak duen erantzukizunagatik interesgarria litzake eztabaida hauek sustatzea. EH BILDURK eztabaida hau bultzatuko du adostasunak bilatuz gainontzeko alderdiekin, ziur baikaude herritarrentzat onuragarria izango dela, bistatik galdu gabe udalaren bideragarritasun ekonomikoaren garrantzia.

IBI aren kasuan, gaur egun hobari bat bada eguzki energia aprobetxatzeagatik. Gure helburua litzateke hobari honen kasuistika hedatzea beste energia berriztagarrien aprobetxamendu sistemetara. Noski, beti ere energia berriztagarrien erabilera hau esanguratsua bada etxebizitza batean urtean zehar.

Eraikin, instalazio eta obren gaineko zergan etxebizitza zaharretan berrizte lanak egitea erraztu nahi dugu, horretako hobaria ezarri. 40 urtean konpondu ez diren etxeen kasuistikatik abiatzea planteatzen dugu beste alderdiekin elkarrizketa, herritarren ongizatea helburu.

Amaitzeko baserrietan obrak egitea estimulatu nahi dugu, lehen sektorea bultzatu eta baserriak hutsik egotea ebitatzeko. Batetik, lehen sektoreko esplotazioa duten baserrietan eraikin, instalazio eta obren zergan hobaria igotzea nahi dugu %90a arte. Bestetik, hutsik diren baserrietara bizitzera joatea bultzatu nahi dugu bertan eginiko obratan %90eko hobaria eskainiz, bertara bizitzera joateko deklarazioa badago gutxienez 4 urtez. Baserrietan bigarren etxebizitza egiteko hobaria planteatzen dugu %50ean, norbaitek deklaritzen badu bertara bizitzera joateko asmoa 4 urtez. Azken neurri gisa, hutsik diren baserrietan teilatuak konpontzeko obratan %100eko hobaria nahiko genuke obren zergan.

Datozen egunei begira EH BILDURK prest dago udal gobernua eta oposizioko beste kideekin hitz egin eta adostasunetara iristeko, justizia soziala bada aldaketan ardatza.